

Bingen Zupiria - Deia egunkariko zuzendaria

«EITBk erakutsi dit zein konplikatu den herrialde honetan euskaraz informazioaren jarraipena egitea»



Bingen Zupiria Deia-ko egoitzan, Bilbon.

Deia egunkariko zuzendari kargua du Zupiriak urtearen hasieraz geroztik. Besteak beste, Ardanza lehendakariaren prentsa arduradun eta EITBko zuzendaria izan da, eta egun ilusioa du Euskal Herriak bizi duen egoera berria gertutik ikusi eta aztertzeo aukera izango duelako.

Irati Sarasua Arabaolaza

Nola oroitzen dituzu Hernanin igarotako urteak?

Herriak oroitzapenak kokatzeko tokiak izaten dira. Niretzat Hernani familia da, Urumea Ikastola da eta baita nire lagunartea ere. Horretaz gainera, egoera politikoa oroitzen dut, eta Ekintza Dantza Taldea eta Txistulari Taldea bezalako ekintza kulturalak ere. Gauza horiek

datozkit burura, baita Santa Ageda eta Urte Berriko errondak ere.

Euskal filologia ikasi otean Ardanza lehendakariaren prentsa arduradun izan zinen, horrek nola eragin zuen zure kazetari ibilbidean?

Zorte izugarria izan dudala uste dut, komunikazioa ikuspegi ezberdinetatik ezagutzeko aukera izan baitut. Lehenengo kazetari moduan lan egin nuen eta gero erakunde batean egonda, hedabideekiko

sortzen den harremana bizi izan nuen. Gerora ikasi nuen hedabide baten kudeaketa zer den, EITBko zuzendari izan nintzenean. Aholkularitzaren arloan ezagutu nuen zer izan litekeen bitartekaritza gizarte erakunde eta enpresen artean; eta orain esan liteke jatorria itzuli naizela.

Egia da zenbait lan izateak markatu egiten zaituela, jendeak zure pentsamendu politikoaz aparte etiketatuta egiten zaituelako. Baina tira, azkenean esperientzia horiek guz-

«Zorte izugarria izan dudala uste dut, komunikazioa ikuspegi ezberdinetatik ezagutzeko aukera izan baitut; lehenengo kazetari moduan lan egin ez, gero erakunde batetik hedabideekiko sortzen den harremana bizitzeko eta ondoren, hedabide baten kudeaketa zer den ikasita»

«Gure helburua bada euskaraz dugun telebista bat telebista oso bat izatea, eduki guztiak euskaraz emango dizkiguna, ez du helburu hori bete EITBk eta helburu hori betetzea ezinezkoa dela uste dut. Pragmatikoagoak izanda, ordea, baietz uste dut».

«Nik ez dut hedabide nahastuetan sinesten, bi hizkuntzatan kaleratzen diren hedabideetan. Uste dut Deia-aren moduko egunkari batean albisteak euskaraz eta gaztelaniaz nahastuta ateratzeko ez diola inori mesede egiten.»

informazioaren jarraipena egitea, edo zein konplikatu den beste hizkuntza batzuetan sortutako edukia euskarara ekarri eta horien jarraipena egitea. Hizkuntza era bizian erabilz gero, erraz kontsumitzen dugu euskaraz; hizkuntza bortxatu edo formaltzen badugu ordea, nire ustez, kontsumoa zaildu egiten da.

Azken urteetan eduki osoa euskaraz eskaintzen duten beste kate batzuk sortu diren arren, urteetan EITBk eskaini izan du eduki guztia euskaraz. Bere eskaintza kontuan izanda, kateak bere lana behar bezala betetzen zuela eta duela uste al duzu? Guztia jomugaren arabera da. Gure helburua bada euskaraz dugun telebista bat telebista oso bat izatea, eduki guztiak euskaraz emango dizkiguna, ez du helburu hori bete eta helburu hori betetzea ezinezkoa dela uste dut gainera. Pragmatikoagoak izango bagina ordea, eta helburu konkretuago batzuk emango bagenizko hizkuntzari eta komunikazioari, esango nuke EITBk horiek bete edo salbatu dituela. Gauza bera gertatzen da gaztelaniazkoekin ere.

Gaur egun ordea Deia-ko zuzendaria zara, eta honen eduki guztia gaztelaniaz kaleratzen da Deian euskarazkoak ez diren beste hedabideetan bezala eztabaida dago; zenbat eduki eskaini behar diren euskaraz eta zeintzuk. Nik ez dut hedabide nahastuetan sinesten, bi hizkuntzatan kaleratzen diren hedabideetan. Uste dut Deia-aren moduko egunkari batean albisteak euskaraz eta gaztelaniaz nahastuta ateratzeko ez diola inori mesede egiten. Egoera ekonomikoaren berri ematen du, eta honen ispilu dela kontutan izanik, garrantzia handia du. Alde horretatik uste dut euskal gizarteak oso momentu interesgarria bizi duela. Politikoki, sozialki eta baita ekonomiki ere. Aukera izatea momentu hori hedabide batetik bizi- zeko oso interesgarria da.

Nola ikusten duzu euskarazko komunikabideen egoera? Ez dakit. Uste dut zorrotzak izan behar dugula, baina orain arte izan dugunarekin alderatuta asko dugu, horrek ez du esan nahi aski denik, gehiago nahiko genuke. Gure herriak inoiz inongo egoeratan ez du hedabideen arloan gaur egun duguna izan. Eztabaida bat zorrotzasuna eta eskubideena litzateke, eta bestea kontsumitzaileena. Ez dakit zerbait gehiago kontsu-

«Uste dut guztiok beste era batera hartu beharko genituzkeela gauzak eta balore gehiago eman beharko geniokeela pertsonari, bere eskubideei eta bere bizitzari, eta beharbada gutxiago interes edo justifikazio politikoei»

«Euskal Herrian azken hilabeteetan izandako gertakizunak sendotzea espero dut, eta benetan elkarbizitzari atek zabaltzea. Eta gustatuko litzaidake horren testigu eta bozeramaile izango den hedabide batean egotea»

mitu nahi dugun euskaraz euskaldunok.

Deia-ko zuzendari zara urtearen bigarren hilabeteetik, nola ekin diozu lan berri honi? Ikasten nabil. Egoera ekonomikoaren eragina oso gertutik bizi dut. Egoera ekonomikoak zaila da enpresa guztiarentzat eta baita komunikazio arloko enpresentzat ere. Ezpata bat dugu gainean eta asko estutzen gaitu.

Gure negozioak gainera egoera ekonomikoaren berri ematen du, eta honen ispilu dela kontutan izanik, garrantzia handia du. Alde horretatik uste dut euskal gizarteak oso momentu interesgarria bizi duela. Politikoki, sozialki eta baita ekonomiki ere. Aukera izatea momentu hori hedabide batetik bizi- zeko oso interesgarria da.

Egoera berria nola bizi duzue hedabidean?

Momentu honetan begirada guztiak Autonomi Erkidegoko hauteskondeei daude zuzenduta. Horrek asko markatzen du eguneroko funtzionamendua; alderdi politikoen mezuak, eta baita hedabideenak ere.

2008ko abenduaren amaieran ondorengo adierazpenak egin zituen 'EITB seguirá con su compromiso ético hacia la libertad y la información'. Zuk kargua utzi otean ere horrela dela uste duzu?

Adierazpen hori ETAK EITBn jarritako lehergailuen ondorio izan zen. EITBn geundena ez genuen gertatutakoa

ulertu. Nik ez dut behin ere ulertu indarkeriaren erabilera eta EITBn urte horietan geundena izan ziren. Ahalegin handia egiten genuen gainera gai horren inguruan zegoen pluraltasuna erakusteko, irriti eta zein telebistan. Iruditu zitzaigun eraso hori denen ahotsak biltzeko egindako ahaleginaren aurkako eraso izan zela. Harrezkero EITBn askoz ere aniztasun gutxiago egon dela uste dut, eta ez da inoiz errepikatuko horrelako gauzarik.

Nola bizi izan duzue komunikabidean Athletic futbol taldeko jarraitzaile zen Iñigo Cabacasen heriotza?

Ulertezina da. Bere lagunek erabilitako esaldi batek oso ongi adierazten duela uste dut. Ez dago eskubiderik. Ulergaitza da. Uste dut zoritzarek aurreko urteetako giro beltzaren eraginak pisu handia duela gudan. Eta pisu handia du seguruenera ere Ertzaintzaren jarreraren, zenbait talderen jarreraren, gauzak epaitzea eta iritzi bat ateratzea, eta uste dut hori ez dela inondik inora ona. Uste dut Ertzaintzak kasu batzuetan beste jarrera bat izan beharko lukeela, zenbait taldeen ematen diren jarrerak betiko desagertu beharko liritekeela, eta gauzak beste era batera hartu beharko genituzkeela. Pertsonari balore gehiago eman beharko genioke, honen eskubideei eta bizitzari; eta beharbada gutxiago interes edo justifikazio politikoei.

Etorkizunera begira zein asmo duzu?

Euskal Herrian azken hilabeteetan izandako gertakizunak sendotzea espero dut eta benetan elkarbizitzari atek zabaltzea. Urte askotan bizi izango gara inoiz inongo egoeratan ez du hedabideen arloan gaur egun duguna izan. Eztabaida bat zorrotzasuna eta eskubideena litzateke, eta bestea kontsumitzaileena. Ez dakit zerbait gehiago kontsu-

Eguno egoera politikoa oso modu interesgarrian ikusten dut. Uste dut beti amestu dugun egoera bat bizi dugula, eta indarkeriarik gabeko egoera da. Horrek esan nahi du jende asko lasaia bizi dela, mehatxurik sentitu ez duelako. Horrek beste eszenario batean jarriko gaitu, iruditzen zait indarkeria bukatuta proiektu politiko guztiak defendatzeko atek zabaltzen direla. Ez dagoelako txantajerik inongo aldetik, eta uste dut horrek beste egoera batean jarriko gaituela, herriartean nahia eta borondatea defendatuko dituen. Etorkizuna herriak nahi duena izango da. ■